

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAU MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeke aurkezten du ondoko arau proposamena, helburu izanik egoera zaurgarrian dauden familiei eta pertsonei laguntzea Covid 19ak utzitako kalteak arintzen, eta kontuan izanik, 2021ean, tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituztela Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek jasotzeko arrazoiak Covid 19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboari aplikatu ahal izango zaie. Hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete:

Aldatzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Ordenantza, 12. artikulua (Hobariak) honakoa GEHITUTA:

7.- % 25eko hobaria izango dute 2021. urtean, 2020. urtean 14.796 € urteko errenta pertsonal erabilgarria izan duten erabiltzaileek edo 30.383 €¹ edo txikiagoa izan zuten bizikidetzaren unitateek.

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

1 Altzako familiek dute errenta erabilgarri txikiena (Hiri ekonomiaren barometroa, 2020).